EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 2027an VII. PLANGINTZALDIKO AMAIERAKO EBALUAZIOKO LANAK KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1. Xedea

2027an VII. Plangintzaldiko Amaierako Ebaluazioko lanak kontratatzea da kontratazioaren xedea.

2. Aurrekariak

Otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren bitartez arautu zen Euskal Sektore Publikoa osatzen duten erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua; Dekretu horren 21. artikuluan ezartzen da Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-politikaren eskumena duen sailak ebaluazio-txostena egingo duela plangintzaldi bakoitzaren eta Eusko Legebiltzarrari, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluari eta Herri Administrazioak Koordinatzeko Batzordeari (HAKOBA) bidaliko zaiela plangintzaldi amaieran. Halaber, euskal sektore publikoko entitateen esku eta herritarren esku ere jarriko dela.

Arestian aipatutako Dekretuan araututakoari jarraituta, 2027an VII Plangintzaldiko Amaierako Ebaluazioa egingo da irizpide estatistiko eta soziolingüistikoetan oinarrituta Dekretuaren eraginpeko erakunde publikoetan.

VII. Plangintzaldian Euskal sektore publikoko erakundeek euskararen erabilera Plan Estategikoa, Kudeketa Plana eta jarraipena egiteko HPSk VII. Plangintzaldi honetan proposatzen duen KEMEN markoan jasotzen diren eta erakundearen hasierako egoera kuantitatiboa islatzen duten adierazleak hartu ditu kontuan.

Eusko Jaurlaritzak aginte panelean zehaztutako 14 adierazleak gutxienez, eta hortik 48 arterakoak erakunde publiko bakoitzaren erabakiaren arabera. Era berean, datozen bost urteetarako erronkak eta helburu estrategikoak ezartzeko KEMEN markoa garatzeko metodologia erabili dute erakundeek bere egoera kualitatiboa aztertzeko eta diagnostiko kuantitatiboa osatzeko.

Plangintzaldi honetarako Plan estrategikoa egina duten sektore publikoko entitateen datuak lagako dizkie Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak enpresa esleipendunari. Era desberdinetako erakunde publikoetan euskararen erabilerak hartzen dituen esparru guztien gaineko datuak, datuok arazteko eta ustiaketa egiteko. Ondoren datuok eraldatu, aldagaiekin gurutzatu eta interpretatu egingo ditu. Ebaluazioaren helburua erabakiak hartzeko informazio baliagarria lortzea da.

3. Egin beharreko lanaren ezaugarriak

Egin beharreko lanak honakoak izango dira:

1. Prozesuaren metodologia
   Egin beharrekoen helburu nagusia betetzeko erabiliko den metodologia Kudeaketa eta Erabilera Markoa Euskararen Normalizaziorako-KEMEN markoaren araberakoa izan behar du eta honako hauek aurreikusi beharko dira gutxienez:

   - diagnostikorako lanabesak egokitzeko modua;
   - erakunde tipologia desberdinen trataeraren nolakotasuna, aldagaiak eta gurutzaketak eta azkenik,
   - emaitza txostenak gauzatzeko bitarteko eta moduak.

2. Plangintza, antolaketa eta kudeaketa
   - Zer eta nola aztertuko den zehaztu 19/2024 Dekretuaren eraginpeko era desberdinetako erakunde publikoetako VII. Plangintzaldiko Amaierako Ebaluazioa Bikain Ebaluazioko Kudeaketa eta Erabilera Markoa Euskararen Normalizaziorako-KEMENen adierazleekin bat etor daitezen.
   - Proposatutako metodologian oinarrituta, prozesuak xehetasunez eta zehaztasunez definitu behar da. Prozesuaren antolaketa eta kudeaketak honakoa aurreikusi behar du gutxienez:

faseak eta egitekoak; horiek burutzeko era; esleitutako baliabideak; kronograma; datuak aztertzeko eta arazteko modua; aldagaiak aukeratzeko eta gurutzaketa egiteko modua, nola egin datuen ponderazioa eta azkenik datuen irakurketa eta interpretazioak egiteko modua eta txostenak burutzeko plangintza eta modua.

3. Datuak ustiatu

- Datuen garbiketa eta antolaketa egin
- Aldagaiak (lurralde historikoa, sexua, derrigortasun indizea, e.a.) hautatu eta horien araberako gurutzaketak egin.
- Datuak sexuaren arabera emango dira horretarako modua dagoen guztietan.
- Datuak haztatzeko (ponderatu) irizpideak proposatu eta datuak haztatu HPSrekin adostutakoaren arabera.
- Datuak ustiatu eta HPSri eskuratzea.

4. Datuak irakurri eta interpretatu

Emaitza txostena, laburpen exekutiboa zein txosten kualitatiboaren sortze-hizkuntza euskara izango da eta behin HPSrekin azken bertsioak adostutakoan gaztelaniazko bertsioak egingo dira. Txostenak genero ikuspegia aintzat hartuz egingo dira.

5. Egiten den lanaren fase eta jarduera guztietan (tresnen diseinuan, ustiapen, aldagai eta gurutzaketa, ponderazio eta datuen irakurketetan eta txostenen osaeran) genero ikuspegia txertatuko da**.**

Hau dena egiteko HPSk honako datu eta dokumentuak jarriko ditu enpresa esleipendunaren eskura:

a. VII. Plangintzaldiko (2023-2027) Tarteko Ebaluazio Txostenak baita VI. Plangintzaldiari dagozkionak ere beharrezkoa balitz.
b. Kudeaketa eta Erabilera Markoa Euskararen Normalizaziorako-KEMEN adierazleak.
c. Erakundeen zerrenda eta identifikazio datuak.
d. Excell data basea: Plan Estrategikoa egina duten erakundeen diagnosiari dagozkion adierazle datuak (14 gutxienez erakunde guztien kasuan eta hortik gora 48ra arte entitate bakoitzaren erabakiaren arabera).

4. Emaitzak aurkezteko modua

Kontratazioa amaitzen denean, enpresa esleipendunak arestian aipatutako datu guztiak zehatz-mehatz emango ditu euskarri digitalean eta paperean hizkuntza ofizial bietan (sortze-hizkuntza euskara eta gaztelaniazko itzulpena). Datu guztiak formatu erabilgarrian emango dira (Excel, Acces, Word, e.a.). Grafikoak, taulak eta irudiak beste dokumentu mota batzuetara erraz egokitzeko modukoak izango dira.

Datu-euskarrietan HPSren logoa agertuko da.
Adierazle nagusiak sexuaren arabera emango dira, horretarako bidea dagoen guztietan.

5. Lanen jarraipena

Jarraipena lanari egin aurretik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza honek eskatutakoaren arabera zehaztuko diren prozedurari eta egutegiari jarraituz egingo da. Jarraipen lanak gauzatzeko lan hizkuntza euskara izango da.

6. Lantokia

Kontratuaren arabera bete beharreko lan guztiak enpresa esleipendunaren egoitzan edo honek horretarako aurreikusitakoetan egingo dira. Azken horiek ez dira inoiz Eusko Jaurlaritzarenak izango.

7. Harreman funtzionala eta organikoa

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ez du inolako lan-harreman funtzionalik ez organikorik ezta kontratu bidezkorik ere izango esleipendunak izango dituen langileekin, ez kontratuak iraun bitartean ezta ondoren ere.

8. Enpresa esleipendunaren betebeharrak

Jabetza intelektuala:

Kontratu honen jardueretatik eratorritako jabetza intelektualaren eskubide guztiak EAEko Administrazioarenak dira, indarrean den legedian jasotzen den eran. Beraz, enpresa esleipendunak Euskal Administrazioaren jabetza-eskubideak bermatu beharko ditu lana gauzatzeko egiten dituen jardueren, aplikazioen, euskarrien eta gainerako materialen gainean.

Hizkuntza ofizialen erabilerari dagozkion baldintzak:

1. Eusko Jaurlaritza eta enpresa esleipendunaren arteko harremanak honelakoa izan behar du:
   a) Ahozko komunikazioetan, lan hizkuntza euskara izango da enpresa esleipendunaren langileak kontratua betearazteko zereginak direla-eta Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jartzen direnean.
   b) Komunikazio idatziak euskaraz izango dira gehienbat edo euskaraz eta gaztelaniaz, enpresa esleipendunak eta Eusko Jaurlaritzak horren beharra ikusten badute.

Horiek horrela, enpresak kontratuaren helburu diren funtzio eta egitekoak euskaraz zein gazteleraz gauzatu ahal izateko giza zein baliabide material egokiak izan behar ditu.

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA IDAZTEAN KONTRATAZIO-ARAUDIA BETETZEARI BURUZKO ADIERAZPENA.

19/24 Dekretuak xedatutakoaren baitan, indarren den VII. Plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa egiteko lanak burutzea xede duen kontratua dela eta, horren beharra, ezaugarriak eta balio zenbatetsia justifikatzen dituen memoria aztertu ondoren, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuak Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzari esleitutako eskumenak baliatuz, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendariak kontratazio-espedienteari hasiera ematea onartu du.

Kontratu hori izapidetzeko behar den dokumentazioa prestatzeko, preskripzio teknikoen agiria egin da, eta Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendariak onartu du. Preskripzio horiek Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 126.3 artikuluan ezarritako irisgarritasun-irizpideak betetzen dituzte.

Horri dagokionez, adierazten dut baldintza-agiri honetan jasotako preskripzio teknikoak kontratazio publikoa arautzen duen araudian xedatutakoaren arabera idatzi direla, eta, beraz, kontratazio-prozeduran interesa duen edozein operadore ekonomikok berdintasun-baldintzetan parte hartzeko aukera ematen dutela, lehiari justifikaziorik gabeko oztoporik eragin gabe.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan

AITOR ESTEBAN ETXEBARRIA - 16061745V

Firmado digitalmente por AITOR ESTEBAN ETXEBARRIA - 16061745V
Fecha: 2026.10.20 13:53:30 +02'00'

AITOR ESTEBAN ETXEBARRIA
Toki Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko eta Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko zerbitzuburua
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza